

Antzeulanak idaztea sustatzeko eta autore dramatikoek la-  
guntzeko asmoz, SGAE Fundazioak lehiaketa deitu du honako  
laborategi honetarako parte-hartzaileak hautatzeko:

## Antzeulanak Idazteko IX. Laborategia fundación sgae fundazioa

### ARAUAK 2021

1. Espainian bizi diren SGAEko bazkide guztiek parte hartu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeko eta Patronatuko kideek izan ezik. Aurkeztutako proiektua elkarlanean egindakoa izanez gero, egilekide guztiak SGAEko bazkideak izan beharko dira, salbuespenik gabe, eta Espainian bizi beharko dira.

2. Egileek edo egilekideek 2021erako deitutako laborategi bakar batean baino ezingo dute parte hartu. Dagoeneko SGAE Fundazioaren laborategiren batean parte hartu duten egileek beste laborategi batzuetan parte hartu ahal izango dute, laborategi berbera ez bada edo azkenengoz parte hartu zutenetik laborategi horren hiru edizio antolatuta badira.

3. Bazkideek antzeulan-proiektu bakarra aurkeztu beharko dute, egile bakarrekoa edo beste egile batzuekin elkarlanean egindakoa, eta gaztelaniaz edo espainiar estatuko beste edozein hizkuntzatan idatzita egon beharko da. 10 orri izango ditu (4.500 hitz), eta bertan honako hauek agertu beharko dira: proiektuaren behin-behineko izenburua, egilearen/egileen motibazioak, argudioaren laburpena eta pertsonaien ezaugarriak. Elkarlanean aurkeztutako proiektuen egileen kopurua ezingo da hiru (3) baino handiago izan. Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako batean badago, egileak gaztelaniazko itzulpena aurkeztu dezake, lanaren jatorrizko hizkuntza ez dakiten epaimahaikideek erabil dezaten. Egileak gaztelaniazko itzulpenik aurkezten ez badu, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaikideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira hautaketa-prozesua amaitzen denean.

4. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, **PDF formatuan** eta **hiru fitxategitan**:

a) Lan-proiektua (3. puntuan azaldutakoaren arabera), eta egilearen edo egilekideen curriculum vitae laburra.

b) Egileak edo egilekideek lehendik idatzitako antzeulan dramatiko eta originala.

c) PDF bat datu pertsonalekin eta harremanetarako datuekin: izena, abizenak, egungo helbidea (ohiko bizitokia eta egoitza fiskala), posta elektronikoa, telefono zenbakia, jaioterria eta jaiotze-data eta SGAEko kide-zenbakia. Halaber, dokumentu horretan, parte hartzen duen egilearen berriazko baimena agertu beharko da (behar bezala sinatuta) SGAE Fundazioak bere datu pertsonalak erabili ahal izateko Antzeulanak Idazteko IX. Laborategia antolatuta eta gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztietan. **Horretarako, deialdi honekin batera eskuratu dezakeen eredu ofiziala erabili beharko du. Eredu ofiziala aurkeztu ezean, eskatzailea deialdi honetatik kanpo geratuko da automatikoki. Antzeulanak egile bat baino gehiago badu, goian aipatutako egile bakoitzaren datuak aurkeztu beharko dira.**

5. Eskatutako agiri guztiak posta elektronikoz bidali beharko dira **formacion@fundacionsgae.org** helbidera, **2021eko urtarrilaren 22tik otsailaren 22ra** (biak barne). Bertan, honako hau jarri beharko da: “(Egilearen edo egilekideen izena) – antzeulanak idazteko IX. Laborategia”.

6. SGAE Fundazioak SGAEko kidea den egile dramatiko ospetsu bat izendatuko du laborategiko zuzendari. Sorkuntza-prozesu osoan, hautatutako egileen taldea koordinatu eta orientatuko du.

7. SGAE Fundazioak eskatutako baldintzak betetzen dituzten proiektuen artean gehien zehaztu dituen hiru hautatutako dituen proiektuen artean gehien zehaztu dituen proiektuak hautatuko ditu, honako prozedura honen bitartez:

a) Arte eszenikoen munduko hiru eta bost profesionalen arteko prestigiozko epaimahai batek proiektuak hautatuko ditu, eta kideok SGAE Fundazioak izendatuko ditu. Epaimahaiko presidentea Antzeulanak Idazteko IX. Laborategiko zuzendaria izango da.

b) Horretaz gain, argitaratuko ez den hiru proiektu gehiagoko ordezkari zerrenda ere ezarriko du epaimahaia, jakitera emango ez dena, uko eginez gero hautatutakoak ordeztu ahal izateko.

c) Epaimahaiaren erabakia 2021eko apirilaren amaieran emango da jakitera.

8. **Antzeulanak Idazteko SGAE Fundazioaren IX. Laborategian** zuzendariak eta hautatutako proiektuetatik, proiektu bakoitzeko gutxienez egile batek hartuko dute parte. Laborategian parte hartzeko hautatutako egile edo egilekideek antzeulan-proiektua garatu beharko dute aurreikusitako epealdian, zuzendariaren laguntzaz eta ikuskaritzapean.

9. Prozesuan, talde-lanerako bilerak egingo dira hautatutako egileen eta/edo egilekideen artean, lanen garapeneren berri emateko. Bilera horiek laborategiko zuzendariaren ikuskaritzapean egingo dira beti.

10. Presentzialki ematen diren bilerak Madrilen burutuko dira. Bilera guztiak, presentzialak edo eta telematikoak, aldian-aldian, 2021eko apirilean hasi eta urte bereko urria arte luzatuko dira. Nahitaezkoa izango da, gutxienez, proiektu bakoitzeko egile bat egotea erakundeak ezarritako egun eta orduetan. Presentzialki bada, hautatuek COVID-19aren zabalkundea ekiditeko SGAE FUNDAZIOAK aurreikusitako segurtasun protokoloaren barneko neurri guztiak errespetatu beharko dituzte.

11. Hautatutako egile bakarreko proiektuen baten egilea Madrilen bizi ez bada, SGAE Fundazioak ordainduko dizkio joan-etorrietarako, ostaturako eta mantenurako gastuak. Hala ere, SGAE Fundazioak hautatutako 6 proiektuen egile eta/edo egilekideen gastu horiek ordaintzeko daukan aurrekontuko partidaren zenbatekoa ez da aldatuko, proiektu bakoitzeko egileen kopurua gorabehera. Zenbatekoa proiektu bakoitzeko egile bakar baten gastuak ordaintzeko kalkulatu da. Horri dagokionez, beharrezkoa izango da elkarlanean egindako proiektuen egilekideek alde aurretik adostea zein egileri ordainduko zaizkion gastu horiek. Hori, dagokion dokumentuan adieraziko da, arau hauetako 4. puntuko c) ataleko fitxategiarekin batera.

12. SGAE Fundazioak hautatutako proiektuei 4.500na euro (zergak barne) ordainduko dizkie. Egile bakarra badago, honela ordainduko zaio zenbatekoa: 2.250 €, laborategiaren hasieran; eta 2.250 €, amaieran (amaierako testua aurkeztu ondoren). Bi kasuetan, alde aurretik dagokion hitzarmena izenpetu beharko da eta legez onartutako kobrantza-dokumentua aurkeztu beharko da, indarrean dagoen araudiaren baldintzak betetzen dituen.

Aurkeztutako proiektua elkarlanean egindakoa bada, 4.500 €-ko zenbatekoa egilekideen artean banatuko da zati berdinetan. Bakoitzari dagokion zenbatekoa bi zatitan emango da, aurreko paragrafoko irizpideari jarraituz (zati bat laborategiaren hasieran; eta bestea, amaieran, azken testua entregatu eta kobrantza-dokumentua aurkeztu ondoren).

13. Hautatutako egileek eta/edo egilekideek konpromisoa hartuko dute laborategian parte hartzearen ondorioz sortutako lanen argitalpenerako eskubideak lagatzeko. Izan ere, SGAE Fundazioak eskubidea izango du antzeulan horiek egoki deritza bilduman, datan, euskarrian eta ale-kopuruan argitaratzeko. Horretarako, egileek/egilekideek edizio originalaren kontratua sinatu beharko dute SGAE Fundazioarekin. SGAE Fundazioak gaztelaniaz bakarrik argitaratuko ditu lanak. Hautatutakoek egindako lanek beste egile edo eskubide-titular batzuen aurretiko lanen zati edo edukiren bat badute (beste literatur lan batzuen zatiak, abestien letrak osorik edo letren zati bat kopia badute edo edizioan beste egile batzuen lanetako marrazki edo argazkiak jarri nahi badira), hautatutako lanen egileek eta/edo egilekideek egiaztatu egin beharko diote SGAE Fundazioari aurretiko lanen eskubideak dituzten titularren baimena daukatela, lanetan txertatu ahal izateko eta lanekin batera argitaratu ahal izateko.

### ADIERAZTEN DU/DUTE:

1. Bere/beren borondatez aurkezten duela/dituztela “Antzeulanak Idazteko IX. Laborategian” parte hartzeko eskaera/k.

2. Deialdi honetako oinarriak irakurri eta ezagutzen dituela/dituztela eta horien edukia onartzen duela/dutela. Horretarako, curriculum vitae aurkezten dute.

3. Badakiela/badakitela “Antzeulanak Idazteko IX. Laborategiko” deialdi honetan izango duen/duten partaidetza kudeatzeko SGAE Fundazioak bere/berenen datu pertsonalak erabili beharko dituela laborategian parte hartu ahal izateko eta epaimahaiak proiektuak hautatu ahal izateko egin behar dituen administrazio-erlako kudeaketak burutze aldera.

Adierazitakoa kontuan hartuz, **BERARIAZ ONARTZEN DU/DUTE:**

SGAE FUNDAZIOAK idazki honetan eta “Antzeulanak Idazteko IX. Laborategian” parte hartzeko eskaera orriekin batera bidalitako curriculum vitaean agertzen diren datu pertsonalak erabiltzea, laborategian parte hartu ahal izateko eta epaimahaiak proiektuak hautatzeko egin behar dituen administrazio-erlako kudeaketak burutze aldera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta xedapen osagarriek xedatutakoa betez, badakiela/badakitela **SGAE FUNDAZIOAK** dituen datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eskubideak dituela/dituztela, eta baita eramangarritasun-eskubidea eta erabaki individual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Horretarako, SGAE Fundazioaren Zerbitzu Juridikoetara idatzi beharko du/dute, erakundearen helbidera: Bárbara de Braganza 7, 28004, Madrid (Espainia). Idazki horretan, egile edo egilekideen izena/k abizenak, NANA, helbidea, gauzatu nahi duten/dituzten eskubidea eta horretarako zergatia adierazi beharko dira.

Eta hala jasota gera dadin, baimen eta onarpen hau sinatzen du/dute  
.....n, 2021eko.....ren.....(e)(a)n.

Jn./And.....

Jn./And.....

Jn./And.....



**ANTZEZLANAK IDAZTEKO IX. LABORATEGIA  
SGAE FUNDAZIOAK DATU PERTSONALAK ERABILTZeko  
BAIMENA, ANTZEZLANAK IDAZTEKO IX. LABORATEGIAN  
ESKATZAILEAREN/ESKATZAILEEN PARTAIDETZA KUDEATU  
AHAL IZATEKO**

Jn./And.....  
jaioterra....., NAN-zk.....  
helbidea.....  
posta-kodea....., herria.....  
postaelektronikoa.....  
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....  
Bere burua ordezkatzu eta bere eskubidea erabiliz.

Jn./And.....  
jaioterra....., NAN-zk.....  
helbidea.....  
posta-kodea....., herria.....  
postaelektronikoa.....  
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....  
Bere burua ordezkatzu eta bere eskubidea erabiliz.

Jn./And.....  
jaioterra....., NAN-zk.....  
helbidea.....  
posta-kodea....., herria.....  
postaelektronikoa.....  
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....  
Bere burua ordezkatzu eta bere eskubidea erabiliz.

**14.** Egileek eta/edo egilekideek konpromisoa hartuko dute, beren antzezanak (Laborategirako hautatutakoak) etorkizunean antzeztu edo argitaratzen badira, **Antzezanak Idazteko SGAE Fundazioaren IX. Laborategia 2021** aipatuko dutela antzezen eta/edo argitalpenean.

**15.** Norberaren datuen babesa: egileek eta/edo egilekideek eman dituzten datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira; nolahi ere, Datu Pertsonalak Babesteko Legea eta horrekin bat datorren indarreko legedia aplikatuko da. **SGAE FUNDAZIOAK dituen datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, edo horien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea gauzatu nahi izanez gero, egileek edo egilekideek SGAE Fundazioaren Zerbitzu Juridikoetara idatzi beharko dute, erakundearen helbidera: Bárbara de Braganza, 7, 28004, Madrid (Espainia). Idazki horretan egile edo egilekideen izena/k abizenak, NANA, helbidea, gauzatu nahi den eskubidea eta horretarako zergatia adierazi beharko dira.**

**16.** Arau orokorrak:

- a)** Egile bakarreko antzezlana izanez gero, proiektuaren egileak berak aurkeztu beharko du eskaera. Elkarlanean egindako proiektua izanez gero, eskaera egilekide guztiek batera aurkeztu beharko dute.
- b)** Eskaera aurkeztean, parte-hartzaileak/parte-hartzaileek agiri honetan zehaztutako baldintzak eta arauak onartu beharko ditu/dituzte. Era berean, baimena emango dio/diote SGAE Fundazioari, laborategiari buruzko informazioa eskaintzean hautatutako datu profesionalak eta/edo irudiak erabiltzeko.
- c)** Argitalpenean antolakuntzaren logotipoak agertu beharko dira.
- d)** Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizunetik salbuetsiko dute, plagioa egin edo indarrean dagoen legea hausten badute.
- e)** Lehiaketa honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du agiri honetan adierazitakoa ez beste erantzukizun zuzen edo subsidiariorik izango laborategia egin eta garatzen denean.
- f)** SGAE Fundazioak eta hautatutako proiektuen egileek edo egilekideek hitzarmen bat izenpetuko dute. Horrek, derrigorrez, dokumentu honetan ezarritako arauak bete beharko ditu, baita jarraian zerrendatuko dugun informazio hau ere:
  - Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
  - Laborategiaren hasieraren eta amaieraren epea.
  - Azken idazkiaren entrega-data: 2021eko urriaren 21a.
  - Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
  - Ordaintzeko modua.
  - Laborategiaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta amaierako testua).

**g)** Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek Madrilgo hiriburuko Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute. Uko egiten diote, beraz, dagokien eskumenari.

Madril, 2021eko urtarrilaren 22a

fundación **sgae** fundazioa

**MATERIALEN BIDALKETA**  
formacion@fundacionsgae.org

**INFORMAZIOA:**  
Interesdunek arau hauei buruz galderak egin edo informazio gehiago nahi badute:

formacion@fundacionsgae.org  
informacion@fundacionsgae.org

Tel. 91 503 68 24 / 14

[www.fundacionsgae.org](http://www.fundacionsgae.org)  
[www.sgae.es](http://www.sgae.es)

sgae  
taldearen laguntzarekin

Antzezanak Idazteko  
**IX. Laborategia**  
fundación **sgae** fundazioa

